

# @ piipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 53. alea 2002ko irailaren 27a



**Erresidentziako plaza  
guztiak beteta daude**



**Tornileria-estanzazioa  
eta  
extruzioa hotzean**



**GOL, S.A. Industriak**


**Sagar Erreka, 19 45 PK**

**20590 SORALUZE**

**Tfnoa. 943 75 21 00 / <http://www.gol.es>**

*Javier Alonso Zelaieta*

Hortz klinika



*Mediku estomatologoa  
434 zenb. kol.*

**Atxuri, 1 - 1. eskuma  
Tfnoa 943 75 16 13**



Barra kargadore automatikoak  
eta makina bereziak

**ETXEHUN, S.A.L.**

Mendiola Industrialdea 14-5

Tfnoa **943 75 18 91**

Faxa **943 75 24 58**

E - maila: [etxehun@teleline.es](mailto:etxehun@teleline.es)

[etxehun@euskaltel.net](mailto:etxehun@euskaltel.net)

**20590 SORALUZE**

Gipuzkoa



**SAN ANDRES**  
Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta  
Berogailuak  
Sukaldeak eta bainuak*

**Errebal kalea 2 behea  
Tfnoa 943 75 16 46**



**MENDIZABAL**

**OKINDEGIA**

**Halebarren,10  
Telefonia 943 75 20 91  
Baltegieta, 6  
Telefonia 943 75 13 99  
SORALUZE**



## Birusak korro-korruan!!

IONE ARIZNABARRETA

**N**eurri handiagoan edo txikiagoan, baina danok gabitz birus beraren eskutik korro korroan...

Bakarrik nagoenetan egin ohi izan duan legez barraren ertzean dagoen aldizkariari egin diot kolpe. Orriak pasatzeari ekin diot bizkor xamar eta erreparo handirik gabe. Burua altxatu dut soilik norbaitek "ebakia sakarinarekin ta kruazana" eskatu duenean. (Eskerrak sakariniari bestela...). Unea aprobetxatu dut inguruan daudenen artean osteratxo bat egiteko... Sei urteko neskato bat Chenoaz ari da sutu, egingo nuke izeba Mari Puriz ez dakiela horrenbeste. Ondoko mahaiari, berriz, bikote bat dago, oso konzentratuta, atzamar potoloari gogor eraginez aldamenen norbait dutela ahaztuta (gutxienez, bi bikote, nor ote mezuen bestaldean?)

Esquarteko orrialdeetara bueltatu naiz, Ortorexia (janari garbien gehiegikeixia) eta Bigorexia (kirol gehiegikeixia) hitzak nere begietara heldu direnean. Uuuu zelako "bitxikeixia"!!

Euskal kutsuko makina bat hitzek hartu dute kalea azkenaldian. Run run... Tira!

burrundara itzelak eramane du nere arreta leihoaren bestaldera ..uauuuu!!!! Tuning bat!!!! Ederra kotxea: faro urdinak, bolante deportiboa, pare bat hiru bat tuboeskape ta aleroi mordua...Jeseeuus!!! Hegan egiten ez duelako, bestela OVNI bat zela esango nuke. Bertatik atera den mutilaren ileak zeruaren kolorea dauka eta hor non irten den beste aldetik neska pinpirina, minigonaduna! Moko kandelak izozteko moduko hotza egingo ez balu udan geundela esango nuke. Ondorioa: eskuarteko erreportariari "dotorexia" hitza gaineratuko diot... Lanerako ordua dela iragartzen duen erlojuak jo du kanpaia, baina azken bitxikeixia irakurri artean ez zentzunarena egingo dut... Egunkariko portadak heriotz gordinaren ibiliak erakusten dituen bitartean guinness liburuan sartzeko azken txepelkeixia irakurri dut. Norbaitek bi kilo arroz jan ditu errekorra haustearren (harro egoteko modukoa)

Neurri handiagoan edo txikiagoan, baina danok gabitz "Tontorexia" birusaren eskutik korro korro korroan... eta honen atzaparretatik libre dagoenak bota dezala lehenengo harria!!!!

## Telegrapak

Ixa egunero gertatzen da. Stop. "Nora juango gara?" "Plaentxiara, Karakatera!" Brum brum! Brum brum! Bi Eibartar Plaentxian sartu dira. Stop. "Barkatu, Karakatera juateko?" "Segi zuzen zuzen!". Stop. Brum, brum! Zeleta baserrixan buelta. Stop. Iriarte baserrixan buelta. "Joder, nundik kristo da bidia?". Stop. Boskoitxi baserrixan kotxetik urten. "Barkatu Eibartik jatoz. Karakatera juateko?" Eibartarrei egurra! "bai bai! segi hemendik bera, gero trenbidian eskumara, gero ezkerreara...". Stop. Badakigu Plaentxia ez dala oso herri turistikua baina seinaletxoren bat ganoraz ipintzia be ez legoke gaizki. Stop. Bertso paper lehiaketarako koplak batzuk etaratzeko modukoa da hau. Stop. Ligia hasi da!. Stop. Abadia badoia!. Stop. beste bat dator!. Stop. 3 Seme alaba eukitziarren dirulaguntzak dare!. Stop. bakarra badaukazu, ez!. Stop. eta etorkiñei ez ei jakue etortzen laga bihar. Stop. gure arraza garbi mantentzeko?. Stop. Oindio inok ez dosku perretxikurik ekarri!. Stop. Eta mediku barrixak zer? Ez daukela zertan euskeraz jakin?. Stop. Ai, ai, ai! Zertan gabiz baina!. Stop. kantau danok! "Guk euskeraz!". Stop. "swepps zergatik ez?". Stop. Ez da brometako kontua!. Stop. Datorren alerarte.



**Argitaratzailea:**

Pil-pilean Kultura Elkarte  
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Sorluze.  
Telefona 943 75 13 04

**Zuzendaria:** Gurutze Ariznabarreta

**Erredakzio burua:** Egoitz Unamuno

**Erredaktoreak:** Enara Agirre, Eguzkine Aldazabal, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Jon Oregi, Oier Oregi, Eduardo Pombar, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

**Publizitatea:** Jon Basauri

**Logotia:** Jon Gabilondo  
(943751304 tel.)

**Banaketa:** Pil-pilean **ekoizpena:** 1.850 ale

**Inprimategia:** Gertu Koop. **Azala:** Aitor Madrid

**Diseinua eta Maketazioa:** Aitor Madrid

**I.Z.K.-a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

*Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.*

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORLUZEKO  
UDALA



EUSKO  
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA

## Erreportaia

Erresidentzian 25 gela daude guztira eta momentu honetan plaza denak daude beteta eta erabat ezinezkoa da bertan sartzea. Aurrera ere guztiz baztertua dago, handitze lanik egitea eta beraz "herriko jentia kanpora juan biharko dau".



**16 Langile daude erresidentzian, denak emakumeak.**

## Zorion agurrak



**Egoitz Unamuno**  
Zorionak!!!  
02 - 09 - 16  
Egoitz hasi kirola egiten bestela ez zara sartuko Pilpileaneko aulkietan!! Animo!!  
Pilpileanekuen partez.



**Aitor Madrid**  
Zorionak!  
02 - 09 - 15  
Aupa Aitor, horrenbeste eginda ya bat ohitu egiten da eta kitto!  
Pilpileanekuen partez.



**Sara Hernandez**  
Zorionak potxolo!!!!  
2002 - 09 - 10 7 urte  
Jarraitu orain artean bezela poxpolin.  
Muxu bat etxekuen partez.



**Irati Perez Claver**  
Zorionak presiosa!!  
02 - 10 - 2  
Segi beti bezain alai!!  
Etxekuak

**Mertxe Arenaza**  
02 - 09 - 24  
**Mertxe Eizagirre**  
02 - 09 - 25  
Zorionak!!!  
Erregaluak gustatu jatzuelakuan ...  
Zorionak senidien partez. Aurten argazkirik ez.

## Gutunak

Dagokieneri!

Jakin ezazuen eta poztasuna ematen badizue, oraingoan bete betean asmatu duzue, min ematea nahi bazeniguten lortu duzue.

Hain zuzen, Karakaten, Asier eta Iñakiren omenez beraien familiek landatutako zuhaitza hiltzen, zer nolako pertsonak zareten adierazten digu.

Asier eta Iñakik hainbeste maitatzen zuten natura ez duzue zuek hilko!  
Asier eta Iñakik hainbeste maitatzen zuten natura

guk defendatuko dugulako!

Asier eta Iñaki beti egongo dira gure bihotzetan, horrelako ekintzak gainera beraiekiko dugun maitasuna areagotu egiten dute!

Horrelako ekintzek gainera beraiek hainbeste maitatutako herria gero eta gehiago maitatzeko indarra ematen digutela-ko!

Ez duzue lortuko, enbor bat moztuta Euskal Herrian sortuko diren kimu berri guztiak hiltzea. Asier eta Iñakik beti iraugo dute bizirik, bai

Karakaten, bai Euskal Herrian eta batez ere gure bihotzetan, beraiek sortu ziren enbor beretik sortuko direlako zuhaitz ardaska gazte berriak... Regina Maiztegi eta Larraitz Lakuesta (eta Asier eta Iñakiren lagunak)

### hildakuak

Mikaela Abarrategi  
Idoia Areitioaurtena Mendizabal  
Crispin Albeniz Barragan

### jaiotakuak

David Pintado Gomez  
Nora Palacin Bolunburu  
Iraultz Oñederra Rodrigex  
Irene Romero Mancha  
Joseba Gil Morales  
Unax Iraolagoitia Azkargorta  
Miren Alauso Garaizabal  
Elene Etxaniz Orbea

## Agenda

### Kilometroak Urretxun

*Irailaren 6xan*

Autobusean izena emateko:  
Gaztelupe, Gila eta Arrano tabernetan.

Pil-pileanek antolatuta.

### GORA EUSKAL HERRIA

*Irailaren 27xan larunbata*

Aldarrikapen festa.

Triki poteoa.

Plazan txosna.

Afaria Arrano soziedadean.

(Asteartean 19:00etan, herriko gizarte eragileekin bilera, ilegalizazioaren inguruan berba egiteko.)

### SAN ROKERA IGOERA

*Urriaren 12an*

Prozesioa San Rokeko ermitara.

### BAI EUSKARARI AURKEZPENA

*Urriaren 3an*

Soraluzeko Bai Euskarari prozesuaren aurkezpena Udaleko Batzar artean.  
20:00etan

### BEGIRALE TITULUA ATERATZEKO

IKASTAROA

*Urriaren 3an*

Soraluzeko Bai Euskarari prozesuaren aurkezpena Udaleko Batzar artean.  
20:00etan

## Abesbatzaren Oharra

Soraluzeko Ezoziko Ama abesbatzak gonbidapen bat egin nahi die Soraluzetar guztiei, abesbatzan parte hartu eta kantuarekin gozatze-  
ra animatu daitezela. Entsaioak; ostegunetan gaueko 9:00etan egiten dira Batzokiko bigarren pisuko lokal-  
letan. Zure zain gaude!

Telefonia 75 24 09

# ARRANO

## tabernia

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

# etxera

# Lakuesta

## Optika

Ikusmen arazoaren frogak eta argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C - behea  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 30 59

**Zer irizten dotsazu?****Zer eritzi daukazu erresidentzien inguruan?**

**Olatz Sebal Larrañaga**  
**19urte**

**Filosofia ikaslia**

Etxian zaindu baleizke etxian zaintzia hobe baina ezin bada erresidentzia on batera eruatia ez dao geizki.



**Marisa Santomer**  
**42urte ileapaintzailia**  
**Carmelo Carrero Sanchez**  
**40 urte elektrizistia**

Gaur egungo bizimoduakin ez dao beste zereginik, biharra dao, geixau be ipini bihako lirake, gainera ondo tratatzen dittue, baina herrixan integratuagua jarri bihako litzake.



**Paulina Rodriguez**  
**52urte**  
**Langilia**

Oso ondo iruditzen jata erresidentzia, oso ondo tratatzen dittue eta berekin pazientzia haundixa dauke, nik bihar dotenian horra jungo naiz, hola ez dotxat inori trabarik egingo.



**Guillermo Alberdi Aramendi**  
**63urte**  
**Jubilatua**

Momentuz ez daukat juateko gogorik ,hori familixan dauan giruan arabera be izaten da, ez daonian beste irtenbiderik, ba jua biharra dao.



**Txillarre**  
**45urte**  
**Mekanikua**

Ondo iruditzen jataz eta biharrezkuak dirala baina al bada etxian egon bihako lirake baina ezin bada erresidentzian ez dare geizki.

Ugaitz Catalan



## **Kiru Muntaiak**

**Blas Elizburu Kortabarria**  
**Sukalde, enpotratu**  
**eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.**

Errekaldia, 30  
Tfnoa 943 75 13 12  
Eskuko tfnoa 670 05 18 20

## **Kontulan Aholkularitza S.L.**

**Enpresa aholkularitza**  
**Jabe Elkarteak**  
**Aseguruak**

Santa Ana, 13 - 1 ezk.      20590 Soraluze  
Tlfnoa: 943 75 17 82      GIPUZKOA

## ETAren aurkako kontzentrazioa

Asteazkenean, eguerdiko 12:00etatik 12:15etara bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri askotan bezala, ETak Goizuetan egindako atentatua gaitzesteko kontzentrazioa egin zen herrian. Plaza Barrian egin zen kontzentrazioan ez zen inolako goibururik izan eta alkatea eta PSOeko zinegotzia izan ziren kontzentrazioaren buru. 70 Bat pertsona bildu ziren plazan, Guardia Zibil asturiarraren heriotza salatzeke.



## Osakidetzako oposaketak

Joan zen larunbatean, Soraluzeke Euskal Herrian Euskaraz taldeak "Euskararen aurkako oposaketarik ez!" lemapean egin zuen ekitaldiarekin "Osakidetzak 1.713 lapostu berritarako egin duen deialdian, berriz ere euskara merituz moduan bakarrik baloratzeko erabakia" salatu nahi izan zuen. EHEren eritziz, berriz ere euskara baztertzea "EAJren hizkuntza politikaren iruzurra da, ez dielako euskaldunei zerbitzua euren hizkuntza ofizialean jasotzeko aukera bermatzen".



## Dirulaguntzak umeak izateagatik



Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzak uztailen onartu zuen dekretuak, seme-alaba bakarra baino gehiago dituzten familiei laguntzeko dirulaguntzak zehazten ditu. Bigarren semea edo alabaren jaiotze edo adopzioagatik 1.100 euro.

- Hirugarren eta hurrengo seme edo alaben jaiotze edo adopzioagatik, 1.100 euro urtero, bost urte bete arte.

- Bikiak jaiotze gero edo bi seme-alaba adoptatuz gero, 2.600 euro urteko, hiru urte bete artean eta 1.200 urteko, 10 urte bete arte.

## 107 plaentxiar lan gabe INEMeko datuen arabera

Espainiako Lan Istitutu Nazionalak (INEM) eskeinitako azken datuen arabera, 107 dira bertan izena-emanda dauden langabetuak. 107 Hauetatik, 74 emakumeak dira 33 gizonezkoen ondoan. Adinari dagokionez, 45-49 urte bitartekoak dira gehienak eta lehenengo mailako ikasketak bakarrik dituztenak. Lan arloari dagokionez, %42a manufaktura-industrialekoak dira eta gainontzekoak lan esperientziarik gabekoak edo higiezin sektorekoak dira.

## Karakaten omenezko zuhaitz bat hautsita

Joan zen urteko irailean Asier Heriz eta Iñaki Saez plaentxiarren omenez landatutako zuhaitza apurtu dute. Zuhaitza hesiz babestua zegoen baina hala ere ezezagun batzuek hautsi egin dute zuhaitza.

## Txikizioak Itxaropenako margo esposizioan

Itxaropenako margo ikastaroen arduraduna den Mari Tere Aristik jakinarazi digunez, iraileko lehenengo asteetan, joan zen ikasturteko ikastaroan akuarelan margotutako koadroz prestatuta zegoen esposizioan txikizioak egin zituen norbaitek. Gizon edatetu bat izan omen da abuztuan egoitza itxita izateagatik protesta egiteko "umiak baino txarrago ibili dana."

### Lonbide taberna

*Pintxoak  
Ardoak, kafeak eta likoreak*

Errabal kalea, 9  
Tfnoa 943 75 14 07



**S.A.  
Industriak**

*Eskulanetarako tresnak*

Industrialadea, 17 - 20590 Soraluze  
Tlfnoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es

## Ilegalizazioaren inguruko iritziak

Aitortu behar dugu, geurea izan zela aurreko alean alderdi guztien eritzi guztiak batera ez azaltzearen errua, eskaerak berandu xamar egin genituen eta. Baina agindu bezala, Soroluzeko Udaleko alderdiek (joan zen alean azaldu ez zirenek) Batasunaren ilegalizazioaren gainean duten eritziaren berri helarazten dizuegu ondorengo lerroetan.

### EAJ-PNV



**P**P-PSOEek bultzatutako "Alderdi Politikoen Legearen" aurrean eta praktikan Batasunaren ilegalizazioa dakarren epaile "berezi" horren autoen aurrean hainbatetan adierazi dugun ezadostasuna berrestu nahi dugu oraingo honetan ere. Garzonen autoaren kasuan, oinarritzko eskubideen aurka jokatzen duelako (adierazpen eskubide, biltze askatasuna edo manifestazio askatasuna) eta gainera, zuzenbide estatuaren zutabeak hankaz gora jarriaz oinarri juridikorik gabe egin dagoelako. "Alderdi Politikoen Legearen" kasuan, eskubide berberak mugatzeaz gain, pertsonen eskubideak eta askatasun bermeak era arbitrarioan erabiltzea bultzatzen duelako.

Lege horren onarpenaren eta aplikazioaren ondorioz, 1.998 urteraino ezker abertzaleari erakundeetan parte hartzeke egiten zitzaion eskariari bizkarra ematen zaio. Gogorazari beharra dago eskari hori ez zuela EAJ-PNVk bakarrik egiten, Ajuria Eneako Hitzarmenean ere jasotzen zen. Baina horretaz gain, elkarbizitza politiko baketsu, demokratiko eta anitzak lekua izango duen helburua zuzen zuzenean urratzen du.

Testuinguru honetan, hainbat dira nazio duintasuna aipatuz bere estratejira makurtzeko ezker abertzaleak egindako deiak. Jakin bezate ez ditugula aintzakitat hartzen, ez dutelako horretarako zilegitasunik. Aspalditik ETAK abertza-

leak ere erahil ditu, mehatxatu, izutu edo estortsionatu. Kasu horiekiko ez dugu oraindik ezker abertzalearen alde-rik elkartasun izpi txikiena ikusi.

Garbi dago gure herriak bizi duen gatazka politikoari irtenbidea bilatzeko, PP-PSOEren ilegalizazio asmoak oztopo direla, baita ETA bera ere. Irtenbidea ez da batzuek besteen Eskubideak mugatzeari ekitea, guztiok guztionak onartzea baizik.

Gure jarrera eta bidea printzipio demokratikoak defendatzea izan da eta izango da beti. Demokrazia demokrazia gehiagorekin bakarrik indartzen delako. Gainera, ziur gaude hori dela euskal gizartearen gehiengoak aspaldi aukeratu duen bidea.

### EA



**B**atasunaren ilegalizazio- prozesuari dagokionez, Soroluzeko Eusko Elkartasunak argi eta garbi adierazi nahi du bere iritzia. Prozesu hauek gure legetan jasota dauden eskubideak eta askatasunak zuzen zuzenean murrizten dituzte; askatasun ideologikoa, adierazpen-askatasuna, elkartzeko askatasuna edota herritarrok parte hartzeko dugun askatasuna. Era berean, zera ere adierazi nahi dugu: prozesu honek oztopo larriak jartzen ditu gure gizartearen elkarbizitza politiko bakean eta demokrazian gauzatzeko.

Horrez gain, esan beharra dago halaber, koherentzia demokratikoari eutsiz, oinarritzko askatasun eta eskubideak beti defendatu eta ziurtatu behar direla, eskubide eta askatasun horiek dituen

pertsona edo taldea gure gogokoa izan ala izan. Alderdi politiko bezala egin dugun ibilbidean, argi eta garbi azaldu dugu beti gure nortasuna: indarkeria beti gaitzetsi dugu eta beti defendatu ditugu pertsona guztien giza eskubideak, eta halaxe jarraituko dugu aurrerantzean ere.

Bestalde, zera ere esan behar dugu: ilegalizazio prozesuak talde armatuko kolaborazio edo partaidetza delituaren interpretazioan oinarritzen dira. Interpretazio hori kode penalean aurreikusita dauden kasuak baino urrunago doa, kasu horiek pertsonen baitagozkie beti eta ez subjektu kolektiboei.

Testuinguru honetan, kezka garria iruditzen zaigu babesgabetasun egoerak zalantza zeko legezketasunak sortzea,

hori gertatzen denean pertsonen oinarritzko eskubide eta askatasunaren inguruan arbitrariotasuna nagusitzen baita.

Amaitzeko, euskal erakunde demokratikoen erabakiekiko errespetua exijitu nahi dugu, erakunde horiek baitira euskal herritarren borondatearen adierazpidea.

### PSE-PSOE



**B**atasunak, gu bonba auto eta tiroen bitartez ilegalizatzearen inguruan bere eritzia ematen duenean emango dugu guk gure eritzia gai honen inguruan.

**Juan Mari Arraindegia**

**Eguneroko arraina eta konjelatuak**

Merkatu Plaza  
20590 Soroluze  
Tfnoa 943 75 24 40  
Partikularra 943 74 03 69

**Limpiezas industriales**

**Limpiezas Trejo, S.L.**

Rekalde, 30 behea  
Tel.: 943 75 25 57  
Faxa: 943 75 25 56  
20.590 SOROLUZE



## Erresidentziako plaza guztiak beteta daude

*Urtero moduan aurten ere, irailaren 24an Mertzedarren Eguna ospatu dute Andre Mari Mesdetakoaren izena eta izana daraman babesetxe edo erresidentzian eta herriko abade den eta izango denak emandako meza eta bazkari berezia gozatu dituzte.*

*26 Urte inguru dira erresidentzia martxan jarri zela eta ordutik hona asko izan dira Mesdetako monjen borondatezko eta maitasunezko tratua jaso duten aitita-amamak. Laguntzearen satisfazioa omen dute euren lanaren ordainik onena.*

*Azken urteetan berrikuntza asko egin dira adinekoen egoitzan; gelak behar bezala egokitu dira, jangela handitu da, telebista gela bat prestatu, sukaldea ere handitu egin da, berokuntza sistema jarri da, 6 logela berri egin dira, sarrerako ranpa, kanpoko aterpea. Hobekuntza asko egin dira baina badira hobetu beharreko kontuak ere. Erreportai honetan, erresidentziaren egoeraren berri eman eta beharbada ahaztuxe ditugun erresidentziako aitita-amamen ahotsa entzunarazi nahi izan dugu, horrenbeste eta gehiago merezi dute eta. Horretarako, egoitzaren ardura daramaten Karmen Inza (Mesdetako lekamea) eta Gregoria Vicente "Goyi"rekin (langilea) berba egin dugu zenbait gorabeherrez. Egoitzako langile nahiz bizilagunek goxo hartu gaituzte eta goxotasun hori transmititu nahi genizueke.*

### Plaza denak beteta

Gaur egun 43 lagun bizi dira erresidentzian. Zaharrenak 99 urte egingo ditu aurten eta gazteena 56 egin ditu. Hauen zaintzan dauden langileak berriz 16 dira, horietatik 5 erdi borondatez lan egiten duten Merzedariak. Azken hauek gero eta gutxiago.

**“momentu honetan plaza denak daude beteta eta erabat ezinezkoa da bertan sartzea”**

Erresidentzian 25 gela daude guztira eta momentu honetan plaza denak daude beteta eta erabat ezinezkoa da bertan sartzea. Aurrera ere guztiz baztertua dago, handitze lanik egitea eta beraz “herriko jentiak kanpora juan biharko dau”.

Erresidentzian sartu ahal izateko bete beharreko baldintzak ere aldatu egin dira azken urteotan. Orainartean, Sorluzekoa zen edonor hartzen zuten erresidentzian baina momentu honetan ezaugarri asko bete behar dira erresidentzian tokia lortzeko eta lehen ez bezela, Foru Aldundia da pertsonaren egoera eta erresidentziaren egokitasuna baloratu ostean, azken erabakia hartzen duen erakundea. Gaur egun “erresidentzian sartzea nahi daberen aitona-amona batak, Udaleko Gizarte Zerbitzura jo bihar dau eta han esango dotse; daukan gaixotasun edo ezintasunaren arabera ze motatako erresidentziara juaia komeni jakon”.

### Langileen eta aitita-amamen harreman estua

Sorluzeko erresidentziaren ezauga-



rri nagusi eta baliotsuenetako bat txikitasuna da eta ondorioz langile eta bizilagunen arteko harremana oso estua da. Karmen Inza erresidentziako zuzendari den merzedariak dioen moduan, Soraluzeko Erresidentzian “danok ezagutzen degu elkar”. Beste erresidentzia handiago batzuetan, bizilaguneko dagoen langile ratioa berdintsua izan arren, eraikina handiagoa izanda harremanak ere hotzagoak izaten omen dira ezinbestean.

Bestalde, erresidentzian ekitaldi erlijioso asko antolatzen omen dira urtean zehar, pertsona nagusi gehienek kristautasunaren behar handia izaten dutelako; meza, hitzaldi eta errezo asko egiten dituzte adinekoen behar hori asetzeko.

### **Oraindik ere ahal den bitartean etxean**

Karmenen esanetan, oraindik ere egoera jasanezina bihurtu arte eusten diete familiek etxean adienekoei. Familia gehienentzat, erresidentzia, arazoaren aurrean planteatzen den azken aukera omen da. “Egia da erresidentzian ondo bizi arren ez dela etxeko goxotasuna bezalakorik” aitortu digu Karmenek.

**“herrixak erresidentzia beria dala sinistia falta da eta beste gauza batzuk defenditu eta laguntzen diran moduan laguntzia”**

### **Gero eta adineko zaharragoak**

Garai batetik hona asko aldatu omen da erresidentziara sartzen zen pertsonaren perfila, Karmenen esanetan “ lenago, nora joan ez zeukan jentea etortzen zen, jente pobrea sarritan, baliabiderik ez zeukana, gainera orduan ez zen ordaintzen. Orain izena ere aldatu zaio, asilo izatetik erresidentzia izatera pasatu da eta datorren jendeak ekonomikoki suposatzen duen gastuari ere begiratzen dio. Orokorrean, orain etortzen den jendeak baliabide ekonomiko gehiago izaten du lehen etortzen zenak baino. Baina orain ez dira, 65 urterekin eta 70ekin ere etorriko. Orain 80 urterekin eta agian burua dena galtuta etorriko dira. Lehen baino jende gehiago etortzen da burua galtuta. Jendea zaharrago egiten delako seguruenik”.

### **Egoitzaren kokapen eta integrazio eskasa herrian**

Zaharren egoitzako aittitta-amamak, norbere ezintasunez gainera, inguruko traba fisiko gogor eta gainezkinak ere

badituzte. Erresidentziaren kokapen aldatuak dela eta aittitta-amama askori ezinezkoa egiten zaie erresidentzia ingurutik aldentzea eta horrek gartzelan daudenaren sententzia eragiten omen die askori. Zain daude beraz, Udalak igogailua noiz ipiniko eta horretxan desioz bizi dira asko eta asko, bizitza normalagoa eta errazago egiteko esperantzaz.

Urruntasun fisikoaz eta toki faltaz gain, Goyik beste gauza azpimarragarriago bat ere somatzen du faltan; “herrixak erresidentzia beria dala sinistia falta da eta beste gauza batzuk defenditu eta laguntzen diran moduan laguntzia. Kalian egiten dira ekitaldiak eta ospakizunak eta abar baina erresidentzia aparte gelditzen da. Ez da kontuan hartzen herriko jente pila bat daguala hor, aittitta amamak diranak eta ezin dabena alde batetik bestera jua.” Hone tan ere lehenago ohitura handiagoa omen zegoen erresidentziara joateko, nahiz eta oraindik ere, dantza taldea, musika eskola, abesbatza eta beste hainbat talde urreratzen diren.

Kanpoko jendeari dagokionez. Oraindela urte batzuk jende gehiago jaten omen zen bisitan, batez ere jende gazte gehiago. “Aruzua da familixakoren bat barruan daukazunian bazatozela baina bixen bittartian ez dakizula existitzen danik be. Edozein arratsaldetan gazte talde bat etorri leike, aittitta-amamekin kartetan jokatu, pasio bat emon edo berba pixkat egittera baina ez dago horretarako kontzientziarik. Eta oso garrantzitsua da herritarrak jaikitzia herrixarendako erresidentzia bat dala eta herrixana.”

Hala ere, jendearen detaile onak ere sarri izaten omen dira, norbaiten urtebetetzea denean esaterako, askotan ekartzen omen dituzte pastel eta gozoak. Erresidentzia bertako bizilagunen urtebetetze denak ere ospatzen dituzte. Karmenek eta Goyik esan digutenez, izan omen da ohitura herriko ekitaldietan soberan gelditutako janariak eta ateratako diruak erresidentziara eramateko eta beti omen da eskertzekoa jokaera hori.

Etorkizunera begira, mertzedariaren gutxitzearekin arazo gehiago izango dela uste dute bai ekonomiko eta bai giro aldetik.

*Gure aittitta-amamak bisitatu eta babesa ematea da egin dezakegun gauzarik handiena, baita argiena ere, geu ere noizbait maitasun egarri izango garen adineko izango garelako.*

**Egoitz U.**



**Joxepa Bastarrika (91 urte)**

Ni Ataundarra naiz jaiotzez baina urte askoan hemen bizitakoa. Senarrarekin etorri nintzen hona, oraindela 15 urte. Hemen elegante nao. Ni oso ondo konpontzen naiz denekin eta beti izaten naiz laguntzeko prest; sukaldean edo zerbait batzen lagundu behar bada beti prest. Holaxe ikasi nuen eta. Gimnasia pixkat ere egiten det eta irrintziak ere bai bazkaritan.



**Juan Arizaga (75 urte)**

Abrilan lenenguan urtia pasau zuan hona etorri nintzala. Hemen ondo egoten dok, ni behintzat ondo najaok. Nik etxakat kejarik. Gauza bat jakak txarra, aldapia. Hori azkena dok guretako. Ostientzian edarki, atenziño haundixa emoten juek eta jan be nahikua.. batzuetan aspertu pixkat baina tira...hori danian.



**Margarita Larrañaga (98 urte)**

Urte bi pasau dia erresidentziara etorri nintzala. Bakarrik egotia tristia da ta ibiltzen be kostat ba...haibeste urtekin sustau eitten nintzan. Sustosia ez naiz iza eh! baina...Hemen edarki gare, oin keja bat dakat, ez dostela lagatzen sistia eitten. Neri justatzen jata musikia entzutia ta hola begixak deskantzauaz trankil egotia.

**Futbola**

**Denboraldi berria,  
jokalari berriak**



**2.002-2.003 Denboraldiko Sorako erregional taldeko jokalariai entrenamentuan.**

Denboraldiari aurre egiteko jokalari berriak ekarri ditu zuzendaritzak eta aldatetak regional mailan eta jubeniletan egin dira batipat. Zuzendaritzak esperientziadun bi entrenatzaile ekarri ditu bi talde hauetarako, jubeniletarako Recio eta regional mailako talderako Toñin elgoibartarra. Toñin urte askotan zehar Soraluze futbol taldeko jokalaria izandakoa da eta urte batzuk Elgoibar-

ko kadeteen entrenatzailea izan ostean zuzendaritzaren eskaerari baiezkoa eman dio.

- 1. Jardunaldiko Emaitzak. Regionala.
- Mutriku 1--- Sora 1 Jubenila.
- Sora 2--- Billabona 2 Kadetea.
- Urki 2--- Sora 2.

**Mendizaletasuna**

**Domekan Peña del Leon-era**



**Aurtengo finalista egunean saritu zituzten umeak eta gurasoak.**

Aurten ere hasi dira Soraluze Mendi Taldeko irteerak. Lehena orain aste batzuk egin zuten eta bigarrena astebukarra honetarako antolatu dute Arabar-Errioxako Peña del León mendira. Irte-

era egun guztikoa izango da eta parte-hartzaileek eguraldiak laguntzen badu, egun zoragarri bat pasatzeko aukera izango dute.

**Pelota**

**Soraluzetar pelotariak kanpora**

Soraluzeko pelotari gazte batzuk aurten ere beste herri batzuetako klubak ordezkatu beharko dituzte herriko polikiroldegia itxita dagoelako, gaintzeko pelotariak ostera ez dute beste herriko klubekin jokatzetik izango eta pelotalekua zabaldu arte itxaron beharko dute jokatu ahal izateko. Hona hemen herriko kanpo jokatu duten jokalarien zerrenda:

Onar Muguruza: Elgetako klubean jokatu du. Aurrelari asko daudenez Onar-ek bakarka edo atzelari gisa jokatu du.

Jon Arrieta: Jonek ere aurtengo urtean Elgetako kluba ordezkatu du.

Iñaki Jauregi: Añorgako kluba ordezkatu du aurtengoan ere.

Erlei Txurruka, Zuhaitz Rodriguez, Ruben Hernandez eta Aitor Atxotegi: Elgetako klubean jokatu dute.

Jon Varela: Eibartarrek Jon-en partehartzea eskatu dute eta aurten Jonek Eibarren jokatu du.

Aritz Laskuraini dagokionez bi partiduko jokatu ditu azken asteetan:

Oraindela bi larunbat Baños del Rio Tobian, errioxan, Barberitorekin batera, 22 eta 17 irabazi zuen Camarero eta Matute pelotarien kontra. Erañegun Logroñon izan zuen partidua eta 18 eta 13ko emaitzaz irabazi zuen Leitza eta Merinaren kontra Galartza V.arekin batera.

**Kirola**

**San Andresko frontoiko argiak pizteko txanponak**

San Andres auzoko frontoian argia pizteko balio duten txanponak, salgai daude dagoeneko euro bakar baten truke Udaltzaingoaren egoitzan. Txanponak txanpon arruntentz itxura dute eta ordubeteko argiztatze iraupena ematen dute. Udaltzainak goizeko 6etatik gaueko 22:00ak arte izaten dira bertan eta beraz, edozein momentutan eskuratu daitezke argi txanponak.

# Jokin Mitxelena Soraluzeko abadea

“Neretzat pozgarriena, bai katekesian bai gazteekin bai taldeetan egin deguna da”

*Jokin Mitxelenak urriaren 12an esango dio agur Soraluzeko parrokiaren gidari erlijioso izateari Iruneko Familia Santua parrokiaren ardura hartzeko. 63 urteko Oiartzuarrak 6 urte egin ditu gure herriko apaiz lanetan. Guk urte hauei begiratu bat eman eta izandako gorabeherak errepasatu nahi izan ditugu berarekin eta hona kontatu diguna:*

## Zelakoak izan dira Soraluzeko 6 urte honek?

Ni ez naiz izan inoiz bakarrik bizitzen. Familia handi eta ugarikoa nintzen eta gerora ere beti komunitatean bizi izan gara. Hona etorri eta bakar bakarrik aurkitu nintzen bizitzen. Bakardade hori gogorra da, jendea ezagutzen ez duzunean batez ere. Gero, konfidantza hartu ahala dena errezago joaten da.

Herri moduan jendeak ondo erantzun du baina bat batean ikusi det baita ere, exigentea dela. Eta jakina, nere pentsakera era batekoa da, bertan izan diren pentsakera eta ohiturak bestela dira, batzuetan ez da errexia izan hori, baina oso gustora nago. Lan asko egin dut, laguntza asko izan detelako. Obrak dira gehien ikusten dana, baina katekesi aldetik hainbeste talde, hemen jardun degu jo eta su. Gazte jendearen aldetik oso urte gogorrak izan dira. Lehen gazte jendea etortzen zen pila bat, ohitura zalako. Eskerrak monitore talde on bat izan deguna. Jende gutxiago baina lana gustorago egin dugu. Oso lan ederra.

**Azken urteetan kristau bizitzaren aldetik ze garapen ikusi dozu herrian?** Gazteen kopurua jeitsi egin da. Baina hori ez da garrantzitsuena, sendotza hartzen dute eta gero hain gutxi ikusten ditugu... Katekesian lan asko egiten degu, eta beste parroketan aurkitzen ez dana daukagu hemen, 12 urte arte behintzat, ia ume guztiak jarraitzen dute katekesian. Oraindik badago famelietan ere erantzun on bat eta hori txalotzekoa da.

Beste esperientzi bat ona, neretzako izan dana, helduekin, gurasoekin lan egitea izan da. Gurasoen eskola. Hori izan da zoragarria, ederra, aberasgarria. Bi astetikan behin ordu ta erdi elkartzan ginan hor eta geure gaiak, kezak eta



Jokin Mitxelena abadetxeko terrazan.

zalantzak aztertu eta hitzeginaz argitze-ko eta abar.

**Zer somatu dozu faltan?** Gazteen- gan besteekiko kezka gehiago. Solidaritate munduan kezkatzea. Horrek pena ematen dit. Gauza bat da kristau eginkizunean elizara etorri edo ez etorri. Baina gutxienez, solidaritate kontuan, pobreen munduari begiratu eta ikusi ze bizimodu daukagun guk eta ze bizimodu daukaten beste batzuek. Gazteak horrekiko sentsibilizazioa ezin dute galdu, bestela etorkizun latza eta tristea dauka gure Euskal Herriak.

## Gorabeheraren bat ere izan da...

Orokorrean, gai horiekin asko sufritu det, Ezoziko festak eta abar. Ezin dugu ahaztu festak gure kulturaren, elizako jai eta ospakizuneri lotuta izan direla eta hori apurtzea nik ez dut ikusten egokia denik. Ulertzen dut abuztua ez dala momentu hona. Amabirjinari lotutako festak dira eta nik hori kontuan hartuta proposatzen nuen, aldatu ditzagun festak amabirjinaren jai batera? esate baterako irailaren 8an edo 9an bere oinarria eta zentzua mantendu dezaten. Garai batian edozer gauzogatik meza izaten zan. Zergatik? Apaiz ugari zeuden eta tira... baina gaurko egunean meza, zentzua duen unean eman behar da. Hori da nere iritzia.

## Abade barrixa ezagutzen dozu?

Bai, Luis Gomez Oñatiarra da. 36 urte ditu eta oraingoa 3 urte eman zuen meza berria. 27 urterekin sartu zen seminarioan. Joan zen astean hemen izan zen, San Andres, San Roke eta Ezoziko ermitak ikustera eraman nuen eta asko gustatu zitzaizkion. Oso lasaia da bera eta orduan, gauzak beste patxara batekin hartuko ditu seguruenik. 3 Urtean izan da Elgoibarren laguntzaile bezala eta oraingoz han jarraituko du bizitzen eta egunero etorriko da Soraluzeko parrokiako ardura betetzera.

## Herrixari ze esango zontsake?

Asko eskertzen detela, hainbat eta hainbat pertsonen laguntza. Gauza asko egin ditugu, neretzat pozgarriena da, bai katekesian bai gazteekin bai taldeetan egin deguna. Pertsonekin egin dugun lana. Obretarako ere erantzun handia eman du herriak. Guzti horregatik nere esker ona eta esperientzia hau ez dedala nolnahi ahaztuko esan nahi nuke.

Horrek ez du esan nahi ez direnik akatsak izan. Nere aldetik eta baita ere, inguruan. Batez ere, gogorrena egiten zait gauzak helburu bat dute (eliza berriztatzea) eta helburu horretatik atera eta beste helburuetarako erabili nahi izaten direnean, horrek eman dit minik handiena eta hori izan da okerrena.

Egoitz Unamuno



## “Indi”, Ekuadorretik plaentxiara

Joan zen larunbat arratsaldean, Miguel Angel Ramos “Indi” Ekuadortarrak, “kultura ezberdinen arteko anaitasuna” helburu duen, “La Danza del Diablo Huma” izeneko Ekuadorko aintzinako dantza ikuskizuna eskeini zuen Plaza Barrian. Indi, Ekuadorko “Inbagura probintzian Otabaloko herrian bizi” da eta bertan turismoko agentzia txiki bat eta baliabide urriko jendeari laguntza ematen dion egoitza

bat ere badauka.

Indi bidaizale amorratua da eta bere herrian izan ziren plaentxiar batzuen gonbidapenez etorri zen Soraluzera, beste herrialde askotan izan eta gero.

“Nere poltsan diru apurren bat dudanean egin dezakedan gauzarik onena bidaiatzea da. Aurkitu dezakedan edukaziorik onena munduko unibertsitatea da eta”. **Indi.**

## Software libreari buruzko hitzaldia

Asteazkena 25, Gaztetxean, Software libreari buruzko hitzaldi interesgarria izan zen, Leioako Gaztetxeko Hacklab-etik (Hacker laborategia) etorritako Mikel eta Uli-ren eskutik. Askori hainbeste beldur ematen dion gaia era simple eta ulerterrazean azaldu zuten eta informatikaren baitan dauden mugimendu alternatiboak hobeto eza-gutzeko aukera izan genuen. Mikelen esanetan: “Software librearen mugimendua intelijentzia kolektiboko mugimendu bat da, informazioaren gizarte merkantilizatu bati alternatiba aurkeztuena”. Bere ideologia konkretua duela azpimarratu nahi izan zuten eta libre izate horrek, hau da, jaberik ez izate horrek duen garrantzia: “Software libreak erabiltzaileari askatasun batzuk eskeintzen dizkio eta garrantzitsuenetarikoa bere kideekin kopiak elkarbanatzea eta softwarea hobetu ahal izatea dira”. Informazio gehiago nahi izanez gero, ipini kontaktuan gaztetxearekin eta animatu ekintzetan egingo parte hartzera.

## SORALUZeko III. BERTSO PAPER LEHIAKETAKO OINARRIAK

- 1- Euskal Herriko edozein bertso paper egilek har dezake parte txapelketa honetan.
- 2- Maila hauek bereiztuko dira: A maila: 18 urtetik beherakoak. B maila: 18 urtetik gorakoak.
- 3- Egin beharreko lana ondorengoa da: A mailakoek: 4 bertso gutxienez eta 6 gehienez; B mailakoek: 8 bertso gutxienez eta 12 gehienez.
- 4- Gaia libre izango da.
- 5- Lanak idazmakina eta euskaraz idatziak eta tarte bikoitzez antolatua izan beharko dute. Lanaren bi kopia bideratu beharko dira.
- 6- Lanari erantsitako kartazalaren gainean, bertsoaren izenburuak eta egilearen goitizena azaldu beharko dute eta barruan egilearen datuak: izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia, bizi tokiaren izena...
- 7- **NORA BIDALI** :SORALUZeko

- UDALA** / Santa Ana 1 / 20590 SORALUZE / Edo bestela: pilpilean@euskalnet.net
- 8- Aurkezteko epea: irailaren 24an hasi eta urriaren 22 arte luzatuko da.
  - 9- Sariak era honetan banatuko dira:
    - A. Mailan
      1. Saria: 60 €, txapela eta bertso afarirako 2 gonbidapen.
      2. Saria: 40 € eta bertso afa. Saria Herriko Lehenen 1goari: 30 € eta bertso afa..
      - B. Mailan
        1. Saria: 180 €, txapela eta bertso afarirako 2 gonbidapen.
        2. Saria: 120 €, txapela eta bertso afa.
        3. Saria: 120 €, txapela eta bertso afa. Saria Herriko Lehenengoari: 120 € eta bertso afa.
    - 10- Partaide bakoitzak sari bakarra jaso dezake. Epamahaikoek hala eritzi ezker sariren

bat banatu gabe gelditu liteke.

- 11- Epaia Deba bailarako bi bertsolarik eta Soraluzeko Euskara Teknikariak emango dute.
- 12- Saritutako bertso sorten berri, urriaren 22an emango da komunikabideen bitartez eta baita pertsonalki ere.
- 13- Sari banaketa, urriaren 26an (Ostirala) gaueko 21:30etan Soraluzeko Txurruka jatetxean egingo den bertso afarian egingo da. Sarituek euren lanak abestuko dituzte bertan.
- 14- Txapelketan parte hartzeak, aipatutako oinarri hauek onartzera behartzen du.

**ANTOLATZAILEA:**  
SORALUZeko EUSKARAREN  
AHOLKU BATZORDEA  
(Pil Pilean Euskara Elkarte, Soraluzeko Udala, AEK, EHE, Ibilixan Ibilixan Bertso Eskola, Soraluze BHI, Plaentxi HI..)

Goizeko 6:30-etatik  
aurrera zabalik!!  
Gosarixak eta  
pinto  
goxo goxuak !!

Errabal kalea, 15 Tfnoa 943 75 18 34



**Electricidad LAU, C.B.**

MONTAJES - INSTALACIONES INDUSTRIALES  
BOBINADOS - AUTOMATISMOS - REPARACIONES

Barrio Olca, 3 bajo  
Tel. 75 12 34

20950 SORALUZE

# Maria Rosa Congregado

“Nere gizonak eindako parriladen modukorik ez dago”

Urtiak dira Maria Rosak senar eta alabiakin Argentina laga eta gure herrixan bizitza berri bati ekin zotsanetik. Sorlekua ahaztu ez daben arren, Plazentzian oso gustora daguala esan dosku. Lagunen laguna eta bakezalia, emakume honek makina bat kontu dauzka kontatzeko.

## Izen abizenak eta edadia.

Maria Rosa Congregado naiz eta 40 urte dauzkat

## Zaletasunak.

Ointxe momentuan, pasiatzia.

Eskulanak eittia be asko gustatzen jata baina ez daukat astirik.

## Zenbaki bat, kolore bat, leku bat eta animalia bat.

62xa, gorrixa, hondartza eta txakurra

## Bapo geratzeko moduko bazkarixa?

Nere gizonak eindako parriladen modukorik ez dao.

## Noiz, nora, zeinekin eta zertara?

Nere senarrakin, toki urrun bateko hondartzara... uff!! Ze ondo...

## Ez da inoiz ahaztu bihar...

Lagunak

## Zer da munduko gauzarik inportantiena?

Bakia.

## Eguneko momenturik onena?

Gabeko hamarretan, dana bukatuta sofán jartzen naizenian.

## Zoriontsu izateko klabia?

Maitte dozun jendiakin gustora egotia.

## Amets bat?

Egunen baten neure herrira, Argentinara, bueltatzia.

## Zer falta jako Plazentziari?

Gauza asko. Polikiroldegixa, umiendako parke gehixao ...

## Ze botere eukitzia gustatuko litzaizuke?

Inbidixia kentzekua.

## Egixa borobila da...

Hatzaparra iletargixari begira daguanian, tontuak hatzaparrari begiratzen dotsala.

## Zer miresten dozu?

Jentiagan konpromisua miresten dot gehixen.

## Bertso Begiz

*Zeure herritik etorri zinen  
honaino halabeharrez,  
ta urrunago sufritu arren  
beti zaude irriparrez.  
Alabak ta senarra,  
zuek danon indarra,  
neurtzea ez da erreza,  
Segi orainartian moduan  
ta bete zure ametsa.*

*Etxebarri*

*(Doinua: Iparragirre abila dela)*



## Txiste bat ?

Lepeko gizon bat hain sosua zan, bere buruari txistiak kontatzen hasi zala.

Behin gure gizona lagun batekin elkartzen da ta hor nun hasten dan tripak bota biharrian. Bere lagunak ziero harrittuta galdetzen dotsa “zer dala ta habil barrezka?”. Orduan gizonak erantzuten dotsa “nere buruari ezagutzen ez najuan txiste bat kontau jotsat eta!”.

## Txikitxako oroitzapen bat

Umia nintzala anai arreba ta lehengu-

suekin armarixotik ohera eitten neban salto. Egun baten, lehengusu txikixa ausartzen ez zala-ta, goixan gelditu zan ta nere ama etorri zanian bestiok ohepian ezkutau ginan. Orduan galdetu zotsan nere amak; “noiztik zare hor gainian?” “juan zan astelehenetik edo”.

## Zertan aldatu da zure bizitzia Argentinatik hona?

Danian aldatu da. Lagunak, lana, nere familixia han dao, bizimodua... dana da ezberdina hemen baina oso gustora gare.

Enara Agirre


**TXOKO  
KAFETEGIA**



*Kafe ederra hartzeko txokorik onena!*

Kalebarren 22 behea, telf: 943751789

ELIZpE



h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea

9 4 3 7 5 2 5 6 7

20590 Soraluze

## Argazki zaharra



## Domund eguna 1958

**O**rduan ohitura zan moduan, 1.958xan Merzedarixetan zebizen ikasliak txinatarrez eta beltzez jantzita. Ez zen baliabide haundirik izango baina bai ilusioa eta poza. Egixa esateko, nahikua erropa txukun eta elegantiak dira jantzita daroiezenak. E. Maquinayren argazkia / (Jabier Elorzaren Merzedariak Ehun Urte Soraluzen liburutik aterata).

Egoitz Unamuno

### Eukararen ajeri, sendabelarra



Nahi **jokelako/jonalako**  
ein *jok/n* hori  
GAIZKI



Nahi **dabelako**  
ein *jok/n* hori  
ONDO

Hikako tratamendua erabiltzen danian, menpeko esaldiko aditzak (e)LA, -(e)N, (e)LAKO edo beste edozein menderagailu hikaz jartzia ez legoke ondo. Zuzenak dia beraz,

- Esan *jok/n* joango **dala**.
- Etortzen **danian** *esaixok/n* deitzeko
- Nik ez *juat/jonat* esan neuk erosiko **dotenik**

### Lehiaketa

#### Bazterreko ahotsa

Idazlea: Ana Urkiza


Azken urteotan eta bere lanaren merituz euskal literaturan toki bat lortzen ari diren emakumeetako da Ana Urkiza. Desira izoztuak ipuin-bildumarekin ezagutarazi zuen bere burua orain bi urte, eta honako poema-liburuarekin ez dago dudarik ahots pertsonal bat daukagula gure letren panoraman.

Galdera: ????????

**"Bazterreko ahotsa"-en BI ALE DITTUZU ZAIN**

**Aurreko lehiaketako irabazlea: Oihier Ariznabarreta**  
Erantzuna: ????

BAZTERREKO  
AHOTSA



### Instalaciones Kalebarren S.L.



GAS INSTALAKUNTZAK  
ETA PROIEKTUAK  
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA  
ITURGINTZA OROKORREAN

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92  
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES



ARRATE IRRATIA

asteartero  
12:40an

Soraluzeko berriak  
zure etxean.

Pil-pileanen eskutik.



Interneteko liburu berridizak  
eta Prestakuntza erakundeak  
dituen Zentru garra

**BIZKAIA****Arrigorriaga**

Paseo Urgoiti, 3 • Tel.: 94 6714608

**Bakio**

Barrio Urkizaur, 28 • Tel.: 94 6195718

**Balmaseda**

Martin Mendia, 15 • Tel.: 94 6801390

**Barakaldo**

La Florida, 14 - 16 • Tel.: 94 4389923

**Basauri**

Ibaigane, 2 • Tel.: 94 4496641

**Berango**

Abarotxu bidea, 17 • Tel.: 94 6682502

**Bermeo**

Zubiaur tar Kepa, 26 - 28 1goa  
Tel.: 94 6881194

**Berriz**

J. V. Zengotitabengoa, 8  
Tel.: 94 6225767

**Bilbao -Basurto**

Luis Briñas, 18 • Tel.: 94 4413971

**Bilbao -Begoña**

Circo Amateur Club Deportivo, 2  
Tel.: 94 4734890

**Bilbao -Uribarri**

Plaza Moraza Enparantza, 4 A  
Tel.: 94 4460972

**Elorrio**

Berriotxoa, 16 bajo/baxua  
Tel.: 94 6583189

**Durango**

Monagotorre, 2 behea  
Tel.: 94 6203863

**Ermua**

Cruce Kaltzango, s/n  
Tel.: 943 174702

**Etxebarri**

Parque Bekosolo Parkea, 2  
Tel.: 94 4492622

**Getxo-Areeta**

Las Mercedes, 13 - 4gna (Areeta)  
Tel.: 94 4316589

**Getxo-Algorta**

Avenida Algorta etorbidea, 98  
Tel.: 94 4911724

**Gordexola**

Plaza Molina Enparantza, 11  
Tel.: 94 6798066

**Gorliz**

Plaza de la Iglesia, s/n (udaletxea)  
Tel.: 94 6775200

**Güeñes**

Urrutieta, 21 bajo (antigua ikastola)  
Tel.: 94 6692350

**Igorre**

Élexalde, 30 • Tel.: 94 6737018

**Iurreta**

Bidebarrieta, 4 (Ibarretxe Kultur Etxea)  
Tel.: 94 6203826

**Karrantza**

Barrio Soscaño, 50 • Tel.: 94 6106970

**Leioa**

Sabino Arana, 48 • Tel.: 94 4636503

**Markina-Xemein**

Xemein etorbidea, 13  
Tel.: 94 6168429

**Mungia**

Gamizbidea, 30-32 • Tel.: 94 6741217

**Orduña**

Gran Vía, 10 • Tel.: 945 384539

**Portugalete**

Casilda Iturrizar, s/n • Tel.: 94 4954158

**Santurtzi**

Los Cuetos s/n (Instituto de FP)  
Tel.: 94 4611768

**Sestao**

San Diego, 12 • Tel.: 94 4950826

**Sopelana**

Gatzarriñe, 2 • Tel.: 94 6762477

**Zalla**

Maestra Consuelo Robredo, 18  
Tel.: 94 6390332

**ARABA****Amurrio**

Landako, 8 • Tel.: 945 890514

**Asparrena**

Ilarduibide, 7 (Kultur Etxea)  
Tel.: 945 304227

**Artziniega**

Cantón de la Parroquia, 2  
Tel.: 945 396513

**Kanpezu**

Debajo de las casas, 2 (Kultur Etxea)  
Tel.: 945 415157

**Laguardia**

Sancho Abarca, 16 • Tel.: 945 600517

**Laudio-Llodio**

Lamuza, 13 • Tel.: 94 6728397

**Legutiano**

Plaza Ortiz de Zarate, s/n (Kultur Etxea)  
Tel.: 945 455342

**Vitoria-Gasteiz -Hegoalde**

Alberto Schommer, 10 (centro cívico)  
Tel.: 945 230055

**Vitoria-Gasteiz -Lakua**

Senda de los Echanove, s/n  
(centro cívico) Tel.: 945 178225

**Vitoria-Gasteiz -Aldabe**

Eulogio Serdán, 2 bajo (centro cívico)  
Tel.: 945 139667

**Salvatierra-Agurain**

Fueros, 16 (club de jubilados)  
Tel.: 945 301072

**Zuia**

Añureta, 2 (Casa Veá-Murguía)  
Tel.: 945 430740

**GIPUZKOA****Alegia**

Beistin Auzoa, z/g (Kultur Etxea)  
Tel.: 943 698869

**Arrasate**

Otalora, 10  
Tel.: 943 793554

**Astigarraga**

Tomás Alba, 13  
Tel.: 943 557673

**Azkoitia**

Trenbidearen Zumardia, 1  
Tel.: 943 850146

**Azpeitia**

Foru Ibilbidea, 18 • Tel.: 943 811864

**Beasain**

Oriako Pasealekua, 12  
Tel.: 943 160147

**Deba**

Ifar kalea, 4 baxua • Tel.: 943 192107

**Donostia-San Sebastián -Alderdi Eder**

Parque Alderdi Eder Parkea, z/g  
Tel.: 943 423865

**Donostia-San Sebastián -Ernest Llucho**

Paseo Anoeta Pasealekua, 7  
Tel.: 943 465718

**Donostia-San Sebastián -Egia**

Baztán, 21 • Tel.: 943 281521

**Donostia-San Sebastián -Larrotxene**

Intxaurrenondo, 57 • Tel.: 943 280731

**Donostia-San Sebastián -Casares**

Camino Darrieta Bidea, 1  
Tel.: 943 352745

**Erretereria**

Olibet, 6 baxua/bajo • Tel.: 943 520692

**Eibar**

Carmen Kalea, 3 bajo/baxua  
Tel.: 943 120390

**Elgoibar**

Nafarroa plaza, 1-2gn. pisua  
Tel.: 943 748828

**Elorrio**

Berriotxoa, 16 bajo/baxua  
Tel.: 94 6583189

**Idiazabal**

Kale Nagusia, 52 (Pilarrenea)  
Tel.: 943 187132

**Ikastegieta**

San Lorenzo, s/n • Tel.: 943 650507

**Irún**

Alfonso Morales, 4 • Tel.: 943 615571

**Lasarte-Oria**

Oriamendi plaza, 2 bajo/baxua  
Tel.: 943 360568

**Legazpi**

Plaza Latxartegi Enparantza, 3  
Tel.: 943 737031

**Mendaro**

Herriko Enparantza, 1 (udaletxea)  
Tel.: 943 756013

**Oiartzun**

Madarensoro plaza (frontón)  
Tel.: 943 490875

**Ordizia**

Domingo Unanue Plaza, 8 behea  
Tel.: 943 884378

**Soraluze**

Balategieta, 18  
Tel.: 943 753045

**Tolosa**

Pablo Gorosabel, 34 - B  
Tel.: 943 653720

**Urretxu**

Barrenkale, z/g  
Tel.: 943 725359

**Zarautz**

Zigordia, 34 • Tel.: 943 135046

**Zumaia**

Foronda Kultur Etxea  
Tel.: 943 862866

**Zumarraga**

Avda. Iparragirre Hiribidea, 4  
Tel.: 943 720728

**HURRENGOAK****ARABA**

Alegria-Dulantzi  
Elciego  
Iruña de Oca  
Izarra  
Labastida  
Oion

**BIZKAIA**

Abanto  
Basauri 2  
Bilbao -Deusto  
Bilbao -Otxarkoaga  
Galdakao  
Larrabetzu  
Lekeitio  
Loiu  
Mutriku  
Ondarroa  
Ortuella  
Usansolo

**GIPUZKOA**

Bergara  
Donostia -Lugaritz  
Hernani  
Hondarribia  
Lezo  
Olaberria  
Oñati  
Orio  
Zaldibia  
Zegama  
Zerain

;) euskadi



EUROPEAN  
COMMISSION

# ITUR iturgintza

Iturgintza, Gasa  
Berogailuak  
Sukaldeak eta Bañuak



Santa Ana, 20 Behea  
Tifonoa: 943 75 12 41  
Sakeleko tifonoa: 639 17 96 96



**BELARRAK**  
LORADENDA ETA BELARDENDA  
EROSKETAK ETXERA DARAMATZAGU

Santa Ana, 2 behea  
Tel.: 943 75 30 11  
Eskukoa telefnoa: 646 43 90 40  
20.590 SORALUZE



**HNOS. BENITO  
ANAIAK**

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)




**PASCUAL CHURRUGA, s.a.**

Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxe 943752461  
E-mail: [general@pascualchurruga.com](mailto:general@pascualchurruga.com)  
Errekalde 21 20590 SORALUZE

**CAR OF THE YEAR**



**2002**

Peugeot 307. Ez da zenbaki bat bakarrik

2002 urteko autoa da Europan



Ze puntutaraino izan dezakezu konfidantza auto batekin? Punturik goreneneraino. Batu eta irabazi egin dugu. 6 Airbag (aurreko inteligente 2, alboko bi eta kortina moduko sabaiko bi, aurreko eta atzeko bidaiariendako) eta ABSez gainera, zure eskura jartzen ditugu segurtasuneko elementurik aurreratuenak:

EVA (larritasunezko frenatuendako laguntza), REF (frenatuaren banaketa elektronikoa), ECS (garondoko lesioen aurkako babes sistema), oiñ-jartzeko aktiboa,

Norabide habe atzeragarria eta ESP (orekaren kontrol dinamikoa). Xehetasun eta kontrol osoa.

**ETORMOBIL**

Otaola etorbidea 22

Tel.: 943 20 09 66

EIBAR

**307**   
PEUGEOT